

01^{nº} zbk


Beasaingo
udala



Beasaindik

FEBRERO 2016 OTSAILA

Udal Aldizkaria Revista municipal



igartza
musika

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Pertsonak garrantzitsuena
- ↪ Aurrekontuak 2016
Presupuestos

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Antzerki Garaia
- ↪ Garingo festak
- ↪ Premios Beasain
Callenge 2015

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Igartza Musika

LASTER BEASAINEN...

- 8 ↪ Loinazko San Martin Eguna
- ↪ Urrezko Aizkolarien
binakakotxapelketa
- ↪ Matxinbentako Festak
- ↪ Aurreku eta Soinu zahar
txapelketak
- ↪ Igartza Musika
- ↪ Haurrentzako Antzekia

**Musika eskaintza
urte osora zabalduta
Igartza Musikaren eskutik**

*Nuevo programa que busca
enriquecer la oferta musical
y cultural en Beasain*



Aitor Aldasoro
Beasaingo Alkatea

PERTSONAK, GARRANTZITSUENA

Gure eguneroko lana herritarrak eta beren beharrak aintzat hartuta betetzea dugu helburu, jokamolde hori Udalaren nortasun-ikur bihurtzeko. Horregatik, guztiaren ginetik, herritarren ongizatea bermatzea dugu jomuga.

Ongizatea, baina, modu askotara uler daiteke eta gauza desberdin askok eragin dezakete; horretarako, ordea, oinarizko beharrak bermatu behar ditugu. Baina herritar askok oinarizko beharrak asebetetzeko laguntza eta babesa behar izaten du. Horregatik, gaurkoan, Udaletik herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuei aparteko balioa aitortu nahi diet, bereziki gizarte ongizateko zerbitzuei. Izan ere, sarritan ezezagunak zaizkigu Udalak sail horretatik eskaintzen dituen laguntza eta programak, herritarren beharrei erantzutea xede dutenak: etxez-etxe eta gizarte larrialdiko laguntzak edo kale heziketa programak, besteak beste.

Gobernu honek konpromiso sendoa du pertsonekin eta euren ongizatearekin. Behar gehien dutenei erantzunik egokiena ematea gure helburua eta erantzukizuna baita; pertsonak direlako beti garrantzitsuena.

AL SERVICIO DE LAS PERSONAS

Poner el Ayuntamiento al servicio de las personas para que los beasaindarras sean el eje central de la labor municipal. Ese es nuestro cometido.

Desde la responsabilidad y el compromiso adquirido, garantizar el bienestar social de las y los beasaindarras, es nuestra prioridad absoluta, atendiendo sobre todo a las personas más desprotegidas o que se encuentran en peligro de exclusión social y mejorando los servicios municipales día a día, para que éstos respondan a las necesidades reales y de primera orden de los ciudadanos, porque para nosotros las personas son lo más importante.

BEASAINGO UDALAREN 2016KO AURREKONTUAK | PRESUPUESTOS PARA EL 2016

1 EKONOMIA SUSTAPENA PROMOCIÓN ECONÓMICA

• Enplegu sustapena

Enplegua sustatzeko diru laguntzak eskainiko ditu Udalak tokiko enpresa, merkataritza eta ostalaritzarekin elkarlanean, beren beharrak ezagututa, kontratazio berriak bultzatzeko.

Era berean, Goiekirekin eta formazio espezifikoak sustatzen duten eragileekin hitzarmenak sinatuko dira herritarrei ikastaroak eta praktikak eskaintzeko.

• Lehen aukera programarako diru laguntzak

Gazte langabetuei zuzendutako laguntzak dira haien enplegagarritasuna hobetzeko eta haien laneratzeko sendotzeko euskal enpreetan edota bestelako erakundeetan lanbide esperientzia aukerak eskainiz.

• Merkataritza biziberritzeko plana

Tokiko merkataritza, ostalaritza eta turismoa sustatuko duten ekimen berriak garatuko dira eta hutsik dauden lokal eta gune degradatuak berreskuratu eta berpiztuko dira.

2 ZERBITZUAK SERVICIOS

- Kale garbiketa
- *Mantenimiento de parques y jardines*
- Kale argiztapena
- *Recogida y tratamiento de los residuos*
- Herriko bide eta espaloien berrikuntza
- *Mantenimiento del mobiliario urbano*

3 OGASUNA HACIENDA

- Kiroldegiaren kudeaketa
- Goieki kuota
- Giza baliabideak
- Mailegu amortizazio eta ordainketak


4 LANDA AUZOAK BARRIOS RURALES

- **Astigarreta, Matxinbenta, Garin eta Arriaran**
- Ariaraneko aparkalekuaren egokitzapena, Garin auzoko hilerri inguruaren berritzea eta auzo arteko bidearen egokitzea, Astigarretako ur arazoei konponbidea emateko ur-biltegia ezartzea eta Matxinbentan, auzotarren bilgune den egoitzako teilatua konpontzea.
- **Actividades y proyectos de medio ambiente (Agenda 21)**

5 KULTURA CULTURA

- **Programa Igartza Musika para impulsar las actividades musicales**
- **Dantzan.eus hitzarmena**
- **Colaboración con la extensa red de asociaciones culturales y deportivas**

2016ko aurrekontua
15.387.821 euro



presupuesto 2016
15.387.821 euros

1 EKONOMIA SUSTAPENA PROMOCIÓN ECONÓMICA

1.453.545,29 euro

2 ZERBITZUAK SERVICIOS

4.291.617,53 euro

3 OGASUNA HACIENDA

3.734.387,56 euro

4 LANDA AUZOAK BARRIOS RURALES

255.497,00 euro

5 KULTURA CULTURA

1.348.888,34 euro

6 HIZKUNTZA POLITIKA POLÍTICA LINGÜÍSTICA

418.888,27 euro

7 GIZARTE ONGIZATEA BIENESTAR SOCIAL

1.838.944,51 euro

8 HIRIGINTZA URBANISMO

1.025.882,27 euro

9 GAZTERIA JUVENTUD

255.159,73 euro

10 PARTE HARTZEA, BERDINTASUNA... PARTICIPACIÓN, IGUALDAD...

765.010,50 euro

6 HIZKUNTZA POLITIKA POLÍTICA LINGÜÍSTICA

- **Euskararen transmisioa eta irakaskuntza ahalbidetzeko baliabideak eta erabilera sustatzeko programak eta sentsibilizazio kanpainak**

7 GIZARTE ONGIZATEA BIENESTAR SOCIAL

- **Beasain Lagunkoia**
El objetivo de este programa no es otro que mejorar entre todas y todos los beasaindarras, partiendo de nuestras personas mayores como núcleo impulsor, los barrios y entonos de nuestro municipio.
- **Ciña Alzheimer**
Este programa busca mejorar el bienestar de nuestros mayores con la detección precoz de esta enfermedad.
- **Tratu txarrak jasotako emakumeentzako laguntza zerbitzua**
Laguntza juridiko, psikologiko eta ekonomikoa.
- **Servicio de Ayuda a Domicilio**
Es un servicio integral dirigido a las personas y/o familias que tienen problemas para desarrollar las actividades de la vida diaria, proporcionándoles atención directa en el propio hogar favoreciendo su autonomía.
- **Gizarteratze programak**
- **Centro de día y Residencia**
- **Familia bitartekaritza**
Adin txikiko eta gazteen oinarizko beharrak bermatuak izan daitezten, familiei baliabide eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- **Ayudas de emergencia social**
Son prestaciones de carácter económico dirigidas a cubrir las necesidades de aquellas personas que carezcan de recursos suficientes para hacer frente a gastos específicos necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.
- **Udal laguntzak (Tasa-hobariak)**

8 HIRIGINTZA URBANISMO

- **Bonberia zaharberitzea**
Bonberia eraikina egokitzeko da ikuskizun eta erakusketa leku bihurtzeko.
- **Porteria**
Se adoptarán diversas medidas que mejoren el tráfico y den solución a los problemas de aparcamiento y se destinarán 120.000€ para mejoras y actuaciones en el barrio.
- **Nekolalde eta Zazpitarrieta kaleen berritzea**
- **Desarrollo del plan de accesibilidad**
- **Trabajos de mantenimiento**
Pavimentación de la calle Mayor y la calle Arana, rontonta Itola, construcción y renovación de aceras, renovación de entradas a garajes, puesta en funcionamiento del canal de Igartza...
- **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra**
Beasaingo lur-industrialak, lur eraikigarriak zehaztuko dira eta etorkizunean herria garatzeko aukera eta eremuak- burdinbidea oinarri hartuta- zein izan daitezkeen aztertuko dira, egungo beharrei erreparatuta, etorkizuneko aukera posibleak lantzen joateko.
- **Estudio de tráfico y del sistema O.T.A. para residentes**
- **Zazpitarrietako igogailua**

9 GAZTERIA JUVENTUD

- **Gazteen jarduerak**
- **Gazteleku eta ludoteken kudeaketa**
- **Gaztediko hitzarmenak**

10 PARTE HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA PARTICIPACIÓN, IGUALDAD, MIGRACIÓN Y EDUCACIÓN

- **Actividades de participación ciudadana e igualdad**
- **Ikastetxeetan inbertsioak (Lizeo, Seaska, Murumendi), mantenua eta hezkuntza proiektuak**



Beasaingo eta Ordiziako Udalek Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatutako antzerki ziklo honek helburu du herritarren artean antzerkigintzarako zaletasuna berpiztea eta publiko berria erakartzea.

Urtarriletik apirilera, 8 antzezlanek osatutako programa zabala antolatu da herritar guztien gozamenerako, baina, bereziki gazte publikoa bereganatu nahi izan da eta Euskal Antzerkigintza produkzioaren oparotasuna dela-eta, 8 emanaldietatik 6 euskaraz eskainiko dira.

22. edizio honi, "Caperucita Feroz" antzezlanarekin eman ziztaion hasiera urtarilaren 8an Beasainen. Otsailean beriz, "Kreditua" antzezlanaz gozatu ahal izango dute beasaindarrek eta udalerrian gauzatuko den azken ikuskizuna, "Amodioaren ziega", martxoan izango da. Era berean, musika eta dantza zaletuentzat, hainbat opera eta ballet emanaldi eskainiko dira aurtengo edizioaren baitan.

PREMIOS BEASAIN CHALLENGE 2015

El año pasado, las asociaciones Bealak, Intxaurpe, Beti Bizi, Muñogain, Arrastaka y Beasain Mendi, uniendo todas las carreras que se celebraban en el municipio, crearon el circuito Beasain Challenge.

Quedan incluidas dentro de este circuito las seis pruebas populares que se llevan a cabo en el municipio y sus barrios: la carrera de montaña de Garin, las pruebas populares organizadas por Bealak, la carrera de montaña de Arriaran, la prueba Ehunmilak, la carrera a Usurbe y la San Silvestre.

El objetivo que persiguen los organizadores no es otro que fomentar la participación de los beasaindarras en las citadas seis pruebas, por ello, más allá de la competición, la Beasain Challenge premia la participación.

Así las cosas, han sido premiados Andoni Imaz, Goio Mujika, Victor Asensio y Aitor Ormazabal por participar en todas las pruebas y Markos Alustiza e Iñaki Etxeberria por participar en 5 de las 6 carreras organizadas en 2015.



Aurten ere, Garin auzoak, San Sebastian festak ospatu ditu urtarilaren 23 eta 24ko asteburuan. Egitaraua, besteak beste, herri bazkariak, mus eta puntu txapelketak, haur jolasek, mendi lasterketa herrikoiak eta trikitilariak osatu dute.



Kultur eskaintza aberastuz

Kulturaren aldeko apustu irmoa egin du Udalak, musika eta dantza modu berezi batean eta ekintza desberdinen bitartez sustatuz. Horretarako, hitzarmen eta jarduera berriak jarriko dira martxan, hala nola, aurkeztu berri den Igartza Musika programa edota dantzan.eus hitzarmena.

Udazken kulturalaren baitan, hainbat eta hainbat ekintza, hitzaldi eta emanaldi antolatzen dira, gehienak udalerriko kultur eragileek sustatuta Udalaren laguntzarekin. Kultur hitzordu honek duen arrakasta dela-eta, Udalak urte osora zabaldu nahi izan du kultur eskaintza hori. Horiek horrela, Igartza Musikak, emanaldi, kontzertu eta hitzaldiak programa berean bilduko ditu kultur eskaintza zabalduz eta aberastuz.



IGARTZA MUSIKA

“Egiten zena ordenatu, osatu eta ziklo baten forma eman diogu Igartza Musika izenpean”



Xabier Sarasola eta Arantxa Gastesi, Beasaingo Loinatz Musika Eskolako irakasle eta zuzendari izateaz gain, programa berri honen koordinatzaileak dira. Urtean zehar herrian antolatzen diren ekitaldiak oinarri hartuta, eta horiei musika ekimen berriak gehituta, osatu dute “Igartza Musika” egitaraua.



Zein beritasun ditu “Igartza Musika” egitarauak?

Orain arte egiten ziren emanaldi guztiak ordenatu eta forma eman zaie ziklo berean kokatuz. Ekitaldi guztiak ez zeuden egituratuta, bakanka eta etorri ahala antolatzen ziren, askotan emanaldi motak bikoiztuz. Denak hartu eta Igartza Musika izenpean bildu ditugu, osotasun batetik, musika egitarauari indarra emateko.

Zertan oinarritu zarete egitaraua osatzeko?

Orokortasun batetik abiatuz, irizpide nagusi gisa hartu dugu bertako, etxeko, musikariak lehenestea, Udalak dagoeneko hitzartuak dituen emanaldiak oinarri hartuta eta Musika Eskolako ikasleak ere aintzat hartuta, noski. Baina kanpoko taldeak, Euskal Herrikoak nahiz atzerrikoak direnak ere sartu ditugu. Era berean, musika estilo anitzak biltzeko irizpidea ere izan dugu kontutan eta azkenik, noski, aurrekontua, honek ezinbesteko pisua baitu egitarau bat osatzerakoan.

Ondoren, emanaldiak ordenatu eta egutegian banatu ditugu aurretik genituen baldintza ezberdinen arabera. Hilero,

gutxienez, ekitaldi bat egoteko baldintza ezarri genuen, izan ere, lehen, garai batzuetan, bereziki udaberri-udazkenean, pilotzen ziren emanaldi gehienak eta horiek urte osoan zehar banatu ditugu. Herriari begira ere Musika Eskolaren ekitaldi bereziak egitarauan sartu ditugu eta berriekin uztartu ditugu.

Zein aurrerapauso ekarriko du honek?

Aurrerapauso galanta da, hasieratik, urte osorako planteamendua egingo egongo baita aurrekontu zehatz batekin eta beraz, programa bermatuta izango dugu, zer eta nola egin behar dugun jakinda.

Aurreikuspenarekin lana egiteak lasaitasuna eta eraginkortasuna emango dizkigu. Plangintza batekin eta aipatu ditugun irizpideak oinarri hartuta emanaldien aniztasuna eta ordena mantentzea lortuko da, ikuspegi orokor batetik lan egingo dugulako. Horrela, lana aurreratu ahal izango dugu eta unean-unekoa beste lasaitasun batekin hartu. Urte hasiera honetan arin edo presaka ibili bagara ere hurrengo urtera begira hausnartzeko beta izango dugu eta hobekuntzak txertatu ahal izango ditugu. •

Todas las representaciones musicales bajo un mismo programa:



URTARRILA enero 24 19:00 Lucía Gómez (Mezzosoprano) Gerardo Rifón (Organoa) IGARTZA JAUREGIAN Ahotza eta Organoa	APRILA abril 23 19:00 FMA Trio Fred Pelaz (Hammond organoa) Mikel Romero (Gitarra) Ander Hurtado de Saratxo (Bateria) IGARTZA JAUREGIAN FMA Trio IGARTZA JAUREGIAN Perkusioarekin hazten IGARTZA JAUREGIAN Musika Eskolako Irakasleak IGARTZA JAUREGIAN Goizteresi Txistulari Taldea GERNIKA PASEALEKUKO FRONTOIAN Musika Kalean GERNIKA PASEALEKUKO FRONTOIAN Kantaldia	MAIATZA mayo 5 20:00 Narama Abesbatza Loinatz Abesbatza IGARTZA JAUREGIAN Kantuan IGARTZA JAUREGIAN Gitarra - Duos Angel Unzu (Gitarra) Luis Gimenez (Gitarra) IGARTZA JAUREGIAN Bi Poliedro
OTSAILA febrero 21 19:00 Karlos Jimenez (Pianoa) Francisco Herrero (Biolina) Amaia Zubiria (Ahotza) IGARTZA JAUREGIAN Gaia IGARTZA JAUREGIAN Donostiako Orfeoi Gaztea	MARTXOA marzo 13 19:00 Esteban Urzelai (Zuzendaria) ANDRE MARI ZERURATUAREN PARROKIAN Donostiako Orfeoi Gaztea	EKAINA junio 14 19:30 Aitor Furundarena (Eskualduna) Gariñoiz Mendizabal (Txistularia)

A partir de ahora, todos los conciertos y actos musicales se organizarán bajo la nueva iniciativa “Igartza Musika” que el Ayuntamiento ha puesto en marcha con el objeto de estructurar todas las representaciones en el marco de un mismo programa para reforzar y enriquecer la oferta cultural y musical en el municipio.

Pero además de ello, junto con las actuaciones musicales, en colaboración con varias asociaciones del municipio, se prevé llevar a cabo varias conferencias, sesiones de baile u otro tipo de representaciones relacionadas con los conciertos musicales. •



5

LOINAZKO SAN MARTIN EGUNA

- 9:30** Diana eta kofradien harrera eta bilkura. Goizeresi Taldea.
10:20 Kofradien desfilea eta San Martini lore eskaintza (Igarta)
11:00 Meza Nagusia.
12:00 Musika Eskolako Bandaren emanaldia eta kofradiaren ospakizuna.
12:15 Odolki dastatze herrikoa Zubimuzun
14:30 Bazkaria
17:30-19:00 Pilota partidak Gernika Pasealekuan
20:00 Antzerki amateurra (Usurbe Antzokia)
19:00-22:00 Kalejira "Taberna ibiltaria" taldearen eskutik.

5

URREZKO AIZKOLARIEN BINAKAKO TXAPELKETA

19:00 Antzibar kiroldegian



Lawrence O'Toole (Australia - Munduko txapelduna) eta **Iker Vicente** (Nafarroako txapelduna)
Donato Iarretxea (Nafarroa) eta **Iñaki Azurmendi** (Gipuzkoako txapelduna).

Lana: 24 enbor, 5 izakera desberdinetan.

Harrijasotzen, IDOIA EXEBERRIA (Euskadiko emakume txapelduna) eta Jokin Eizmendi (Euskadiko txapelduna)

5-7

MATXINBENTAKO FESTAK

5

11:00 Meza
22:00 Mus txapelketa

6

17:00 Pailazo ekitaldia, txokolatada eta puzgarriak.
Gavean Bertso afaria eta erromeria

7

10:30 Txistulariekin goizeresia
11:00 Meza
11:45 "Pilota Txapelketa Azkarra"
12:30 Herri-Kirolak

28

HAURRENTZAKO ANTZERKIA

17:00 Usurbe Antzokia



21

AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETAK

11:00 Usurbe Antzokia



21

IGARTZA MUSIKA

19:00 Igartzako Jauregia

"Gaua"

Karlos Jimenez Pianoa
Francisco Herrero Biolina
Amaia Zubiria Ahotsa



01^{nº}
zbk

Beasaingo
udala

Beasaindik

FEBRERO 2016 OTSAILA

Udal Aldizkaria Revista municipal



Beasaingo udala